

BALIO PROPOSAMENA

-Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Guk hainbat behar asetzen ditugu gure bezeroei. Gure bezeroak zaugarritasun edo babesgabetasun egoeran dauden pertsonak dira, hauek baliabide ekonomiko gutxi dituztenak dira hainbat arazoengatik izan daiteke; adibidez, kalean bizitzeagatik, langabeziagatik, lan balditza txarregatik, etab. Pertsona hauek ezaugarri bat dute amankomunean, guztiek dituzte arazoak janaria eskuratzeko beraiantzat eta bere familientzat.

Horregatik janaria lortzeko beharra dute bere elikadura ahalik eta ongien asetzeko. Horretarako sortu dugu gure enpresa bere elikatzeko beharra asetzeko. Guk bi behar edo arazo konpontzen ditugu. Lehenengoa establezimenduak egunero janaria ez botatzearen arazoa; hau da, establezimendu askok oso kezkatuta daude soberan dituzten elikagaiak bota behar dituztelako eta holan arazo hori konpontzea lortzen da. Bigarren arazoa zaugarritasun egoeran dauden pertsonen elikadura bermatzen dugu malnutrizioa eta beste elikadura arazoak konponduz edo konpontzen saiatzen.

-Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Elikagai-banku batekin nahas gaitzakete, baina hori ez bezala, gure enpresak okindegietako, jatetxeetako, tabernetako, supermerkatuetako, hoteletako, fruta-dendetako... elikagaiak biltzen ditu; hau da, elikagaiak soberan dituen eta elikagaiak manipulatzeko neurriak dituen establezimendu oro.

Gure enpresa erabiliko duten pertsona erabiltzaileak edo bezeroak ez digute ezer ordainduko, baizik eta zerbitzua doanik izango da.